



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 12a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, 2015eko defizit-helburua betetzeari buruzko kalkulua dela-eta Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean dagoen aldeari buruzkoa eta aurrekontu-desbideratzeari aurre egiteko neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (3. or.).
- Galdera, beren lanbide-jardueran ari direla osasun-langileek izan ditzaketen arriskuak direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatutako erantzukizun zibileko polizaren estaldurari buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (4. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturterako LOMCE legea ezartzeko egutegiari eta LOMCE legea indargabetzea dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentuko fatxada nagusitik Europar Batasunaren bandera erretiratu izanari buruz Nafarroako Gobernuak lehendakariak duen jarreraren gainekoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (5. or.).
- Galdera, 2016ko apirilaren 5ean Leitzan egindako maniobra militarrei buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, *fracking*arekin zerikusia duten “Usoa”, “Ebro” eta “Aquiles” proiektuen ikerketa-baimenen egoerari buruzkoa. Unai Hualde Iglesias jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategia (S3) aurrera eramate aldera Nafarroako Gobernuak Nafarroako ekonomiaren egoeraren gainean egiten duen hasierako analisiari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroan Ingelesez Ikasteko Programa ebaluatze aldera ikastetxeetara bidalitako probei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, jakitekoa zein irizpideri jarraituko die Hezkuntza Departamentuak, behin-behineko irakasleen oporraldien ordainketari dagokionez. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Gobernu zentralarekiko negoziatioari buruzkoa, 2015-2019 aldiari begira Hitzarmen Ekonomikoa eguneratzekoa. José Miguel Nuin Moreno jaunak egin du (10. or.).

- Galdera, jakitekoa zein diren langileen ordezkapenei buruzko 2016rako jarraibideak Nafarroako Ospitale-gunean. José Javier Espärza Abaurrea jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari auditoretza informatikoaren arlo-an egindako esleipenari buruzkoa. Laura Pérez Ruano andreak egin du (11. or.).
- Galdera, jakitekoa zer inbertsio teknologiko egingen dituen Nafarroako Gobernuak Tuterako Reina Sofía Ospitalean. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren balorazioari buruzkoa Idomeniko jarduketari dagokionez, eta jakitekoa zein diren abiaraz ditzakeen ekimenak, siriarrak errefuxiatuak jasaten ari diren egoera inhumanoari erantzuteko. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazioei buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, iaz urte amaieran bertan behera utzitako programen kudeaketa sindikatuei eta patronalari itzultzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).
- Galdera, Hezkuntzako lan-eskaintza publikorako deialdiari buruzkoa. Galdera erretiratzea (14. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, 2015eko defizit-helburua betetzeari buruzko kalkulua dela-eta Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean dagoen aldeari buruzkoa eta aurrekontu-desbideratzeari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, 2015eko defizit-helburua betetzeari buruzko kalkulua dela-eta Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean dagoen aldeari buruzkoa eta aurrekontu-desbideratzeari aurre egiteko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarrita dagoenaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

PPren Gobernuak berretsi du Espainiak ez duela bete aurreko 2015eko ekitaldi ekonomikoko ezarritako defizit-helburua, aurrekontuko arraila BPGd-aren % 5,16koa izan baita; hau da, 10.400 milioi eurokoa.

Ogasuneko ministroak adierazi du 2015ean Nafarroaren defizita % 1,28koa izan dela. Horrek defizit-helburua (% 0,7) bete ez duten eskualdeen artean jartzen du Foru Komunitatea.

Nafarroako Gobernuak dagoeneko aurreikusita zeukan ez zuela beteko defizit-helburua, baina uste zuen % 0,85 ingurukoa izanen zela, orain Gobernu zentralak eman duen datu ofiziala baino askoz txikiagoa zena.

Zer dela-eta dago alde hori Espainiako Gobernuaren eta Nafarroako Gobernuaren artean, 2015eko defizita ez betetzeari buruzko kalkuluari dagokionez?

Zein neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak, aurrekontu desbideratze horri aurre egiteko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 1ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, beren lanbide-jardueran ari direla osasun-langileek izan ditzaketen arriskuak direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatutako erantzukizun zibileko polizaren estaldurari buruzkoa.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztutako galdera, beren lanbide-jardueran ari direla osasun-langileek izan ditzaketen arriskuak direla-eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatutako erantzukizun zibileko polizaren estaldurari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Beren lanbide-jardueran ari direla osasun-langileek izan ditzaketen arriskuak direla eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kontratatutako polizako erantzukizun zibileko estaldurari buruzko informazioa, Osasuneko kontseilariak eman duen eta Estatuko oinarrizko araudiarekin kontraesanean dagoen 1/2016 Jarraibidearen kariatara.

Iruñean, 2016ko apirilaren 5ean

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Galdera, 2016-2017 ikasturterako LOMCE legea ezartzeko egutegiari eta LOMCE legea indargabetzea dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, 2016-2017 ikasturterako LOMCE legea ezartzeko egutegiari eta LOMCE legea indargabetzea dela-eta Nafarroako Gobernuak daukan jarrerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak heldu den apirilaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Diputatuen Kongresuak LOMCE legea ezartzeko egutegia geldiarazten duen lege proposamen bat onartu du izapidetzeko. Egutegi horrek DBHko 2. eta 4. mailetan ezartzea aurreikusten du, baita derrigorrezko ebaluazioak ere.

Nafarroan gauzatuko balitz, bi prestakuntza ibilbide ezberdin sortuko lirake DBHko 4. mailan. Horrela, derrigorrezko etapa horren muinbakartasuna hautsiko litzateke, eta, beraz, ikasleak sailka-

tu eta bereiziko lituzke etapa amaitu baino lehen, atzerabuelarik egon gabe.

Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak LOMCE legea ezartzeko egutegia atzeratzea 2016-2017 ikasturtean? Zein jarrera du Gobernuak lege hori indargabetzeko aukeraren aurrean, eta

zein ekintza ezarriko ditu legearen funtsezko alderdi batzuk, berak onartzen ez dituenak, zuzentzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Parlamentuko fatxada nagusitik Europar Batasunaren bandera erretiratu izanari buruz Nafarroako Gobernuko lehendakariak duen jarreraren gainekoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Parlamentuko fatxada nagusitik Europar Batasunaren bandera erretiratu izanari buruz Nafarroako Gobernuko lehendakariak duen jarreraren gainekoa .

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein jarrera duzu, Nafarroako Gobernuko lehendakaria zaren aldetik, Nafarroako Parlamentuko fatxada nagusitik Europar Batasunaren bandera erretiratu izanari buruz?

Iruñean, 2016ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, 2016ko apirilaren 5ean Leitzan egindako maniobra militarrei buruzkoa.

DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, 2016ko apirilaren 5ean Leitzan egindako maniobra militarrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Dabid Anaut Peña, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentaria denak, Legebiltzarraren Erregelamenduari jarraiki, ondoko ahozko galdera egin nahi du Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun dezan.

2016ko apirilaren 5ean Espainiako armadako hainbat ibilgailu eta soldadu Leitzara joan ziren,

eta bertan ibili ziren ibilgailu militarretan nahiz oinez, baita herriguneko kaleetan ere, soldaduak oinez eta armak eskuetan. Udalak ez zuen maniobra eta presentzia horren berri, inork ez baitzion horrelakorik jakinarazi, eta mugimendu horiek guztiak inolako segurtasun protokolorik eta abisurik gabe egin ziren.

Mugimendu militar horiek herritarren artean ezinegona, kezka eta haserrea sortu zuten, eta hala adierazi zioten Udalari hainbat dei eta kexaren bitartez.

Bazuen Nafarroako Gobernuak maniobra horien berririk? Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia maniobra horien inguruan, eta maniobra horiek elkarbizitzarako giroan izan dezaketen eraginaz? Eta, bestalde, eman al dio Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzari maniobra horiek Leitzako Udalean eta Leitzako biztanleen artean sortu duten ezinegonaren eta kezkaren berri?

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, *fracking*arekin zerikusia duten “Usoa”, “Ebro” eta “Aquiles” proiektuen ikerketa-baimenen egoerari buruzkoa.

UNAI HUALDE IGLESIAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Unai Hualde Iglesias jaunak aurkeztutako galdera, *fracking*arekin zerikusia duten “Usoa”, “Ebro” eta “Aquiles” proiektuen ikerketa-baimenen egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Unai Hualde Iglesias jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Jakina denez, aurreko legegintzaldian Nafarroako Parlamentuak urriaren 15eko 30/2013 Foru Legea onetsi zuen, Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean gas ez konbentzionala ikertzeko eta erauzteko teknika gisa haustura hidraulikoa erabiltzea debekatzen duena. UPNk eta PPK baino ez zuten foru lege hori onestearen aurkako botoa eman. Hala eta guztiz ere, Konstituzio Auzitegiak legea geldiarazi zuen, garai hartan Rajoy jauna lehendakari zeukan Estatuko Gobernuak aurkeztutako errekurtsotik aurrera.

Egoera horretan, bost izan dira hainbat enpresak sustatu eta Nafarroako Foru Komunitateari eragiten dioten proiektuak; horietatik hiruk beste eremu batzuei ere eragiten diete (Aragoi, Errioxa eta Euskal Autonomia Erkidegoa).

Orain dela gutxi jakin dugu enpresetako batek amore eman duela eta teknika hori erabili eta Nafarroari eragiten zioten bi proiekturi dagokienez Industria Ministerioaren aurrean izapidetuta zituen ikerketa baimenak sustatzen jarraitzeari utzi diola. Honako hauek ziren proiektuak: “Pegaso” izenekoak, Urbasa-Andia, Sakana eta Iruñerria ukitzen zituen; eta “Quimera” baimena, Iruñetik Aragoirekiko mugaraino hedatzen zena.

Martxoaren amaieran Diputatuen Kongresu berriko parlamentu-talde guztiek, PPK eta Foro Asturiasek izan ezik, Estatuko Gobernuak premiatu dute hidrokarburoak erauzteko teknika eztabaidatu horren erabilera debeka dezan eta haustura hidraulikoaren bidezko prospekzioak kautelaz eten ditzan, Ciudadanos taldea ere abstenitu egin dela. Halaber, edozein ikerketa proiektu edo baimen eteteko ere eskatu diote, eta legegintzaldi honetan moratoria bat ezartzeko, ikerketak egiteko baimen guztiak edo baimen eskaera guztiak barne hartzen dituen.

Hala ere, badirudi oraindik ere hiru ikerketa baimen daudela, haustura hidraulikoaren teknikari edo *fracking* deritzonari lotuta daudenak eta gure lurraldeari eragiten diotenak; “Usoa”, “Ebro” eta “Aquiles” izenekoak, hain zuzen.

Hori dela eta, foru parlamentari honek hau jakin nahi du:

Zer informazio dauka Nafarroako Gobernuak *fracking* deritzonari lotuta dauden eta gaur egun oraindik indarrean dauden “Usoa”, “Ebro” eta “Aquiles” izeneko proiektuen ikerketa baimenen egoerari buruz?

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategia (S3) aurrera eramate aldera Nafarroako Gobernuak Nafarroako ekonomia- ren egoeraren gainean egiten duen hasierako analisiari buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategia (S3) aurrera eramate aldera Nafarroako Gobernuak Nafarroako ekonomiaren egoeraren gainean egiten duen hasierako analisiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, heldu den 2016ko apirilaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Apirilaren 5ean, asteartean, Nafarroako Gobernuko lehendakariorde eta Garapen Ekonomikoko kontseilari Manuel Ayerdi jaunak “zuzen-zuzenean”

aurkeztu nahi izan zion Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategia (S3) S3 Plataforma Estrategikoari. Plataforma hori ehun pertsona inguruk osatzen dute, Nafarroako Gobernuaren, Nafarroako Parlamentuaren, enpresaburuen, klusterren, jakintza zentroyen (unibertsitateak eta zentro teknologikoak) eta lurralde, gizarte eta enpresa eragileen ordezkarien artean. Plataforma horrek “kontsulta-helburua izanda, parte hartzeko eta ideiak ekartzeko eremua” izan nahi du, “Nafarroarako garapen-ikuspegi estrategiko komuna adosteko asmoz”.

Topaketa CEINen egoitzan egin zen, eta, hori prestatzeko, bertaratuei S3 Estrategiari eta horren garapenari buruzko dokumentazioa –hasierako analisia– eman zitzaaien alde aurretik. Gero, ekitaldian bertan informazio hori aberastu egin zen aurkezpen baten eta AMIA analisi baten bidez (tresna hori erakunde, enpresa edo gobernu baten benetako egoera neurtzen saiatzen da). Bertaratu guztiei horretan taldeka lan egin eta hori aztertzeko gonbit egin zitzaaien.

Nafarroako Gobernuaren ustez, egokia al da Espezializazio Adimendunerako Estrategiari (S3) aurre egiteko Nafarroako ekonomiaren egoerari buruz egiten duen hasierako analisia?

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Nafarroan Ingelesez Ikasteko Programa ebaluatze aldera ikastetxeetara bidalitako probei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroan Ingelesez Ikasteko Programa ebaluatze aldera ikastetxeetara bidalitako probei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, apirilaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

PSN-PSOEk jakin du ezen martxoaren 23an, asteazkenean, hau da, Aste Santuari dagokion oporraldia hasi aurre-aurretik, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Nafarroan Ingelesez Ikasteko Programa ebaluatze proben zehaztapenak eman zizkiela British programa garatzen duten Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batzuei eta PAI irakasten duten beste ikastetxe batzuetako maila horretako eta beste maila batzuetako ikasleei.

Konturatu al da Hezkuntza Departamentua Nafarroan Ingelesez Ikasteko Programa ebaluatze aldera ikastetxeetara bidalitako proben zehaztapenek dituzten gabezia tekniko garrantzitsuez?

Iruñean, 2016ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, jakitekoa zein irizpideri jarraituko die Hezkuntza Departamentuak, behin-behineko irakasleen oporraldien ordainketari dagokionez.

MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zein irizpideri jarraituko die Hezkuntza Departamentuak, behin-behineko irakasleen oporraldien ordainketari dagokionez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari María Solana Arana andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiak emandako epai baten berri izan genuen 2015eko urrian. Epai horren bidez, CCOOko afiliatuak ziren behin-behineko hiru irakasleri uztaileko eta abuztuko lansariak kobratzeko eskubidea aitortzen zitzairen. Ikasturte osorako lan-kontratua sinatu zuten, ekainaren 30eko gehieneko amaiera-eguna zeukana. Epaiak, epaileak ezarri zuen "errekurtso-egileen eskubidea berdintasun-printzipioaren aplikaziotik sortzen zela"; eta, aldi berean, gogorarazi zuen Hezkuntza Ituna 2011n amai-

tu zenetik UPNren Gobernuak izan zuen irizpidea “nahierakeriazkoa, diskriminatzailea eta oso bidegabea” izan zela. Horrez gain, honako hau ere aitortu zuen: “administrazio publikoen zerbitzuko langileen ordainsariak lotu behar zaizkio betetzen den eginkizunari, honako irizpide honi jarraituta: lan berdina, ordainsari berdina.” Epai horrek atek zabaltzen zizkien behin-behineko ehunka irakasleri, diskriminazio horren aurka erreklamazioa aurkez zezaten, azkenean gertatu den bezala.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Zein irizpideri jarraituko die Hezkuntza Departamentuak, behin-behineko irakasleen oporraldien ordainketari dagokionez?

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: María Solana Arana

Galdera, Gobernu zentralarekiko negoziazioari buruzkoa, 2015-2019 aldiari begira Hitzarmen Ekonomikoa eguneratzekoa.

JOSÉ MIGUEL NUIN MORENO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Miguel Nuin Moreno jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Gobernu zentralarekiko negoziazioari buruzkoa, 2015-2019 aldiari begira Hitzarmen Ekonomikoa eguneratzekoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko eledun José Miguel Nuin Moreno jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak heldu den apirilaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoak arautzen du, besteak beste, nola zehaztuko den Nafarroak Estatuari urtero egin beharreko ekarpen ekonomikoa.

Ekarpen horren bidez, Nafarroak Estatuaren karga orokorren finantzaketan parte hartzen du.

2011ko otsailaren 16an, Nafarroako Gobernuak eta Gobernu zentralak Hitzarmen Ekonomikoaren azken eguneratzea sinatu zuten 2010-2014 bosturtekorako.

Hori dela eta, dagoeneko heldu behar zitzaion Hitzarmenaren 2015-2019 aldirako eguneratzeko negoziazioari.

Hori dela eta, hauxe jakin nahi dugu:

– Noiz abiaraziko du Gobernu zentralarekiko negoziazioa, 2015-2019 aldiari begira Hitzarmen Ekonomikoa eguneratzekoa?

– Zer aurreikuspen eta helburu ditu Nafarroako Gobernuak negoziazio horretan?

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, jakitekoa zein diren langileen ordezkapenei buruzko 2016rako jarraibideak Nafarroako Ospitalegunean.

JOSÉ JAVIER ESPÀRZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Espàrza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zein diren langileen ordezkapenei buruzko 2016rako jarraibideak Nafarroako Ospitalegunean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak apirilaren 14ko Osoko Bilkuran erantzun diezaion:

Zein dira langileen ordezkapenei buruzko 2016rako jarraibideak Nafarroako Ospitalegunean?

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari auditoretza informatikoaren arloan egindako esleipenari buruzkoa.

LAURA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari auditoretza informatikoaren arloan egindako esleipenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentutaldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak 2016ko apirilaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak 144/2016 Ebazpena eman zuen martxoaren 14an. Horren bidez, esleipena egiten dio Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari, auditoretza informatikoa-

ren arloan. Ebazpena 2016ko apirilaren 7ko 66. NAO n argitaratu zen. Horri dagokionez:

Zein urtetatik egin da esleipen hori, eta zergatik ez du Foru Ogasunak behar bezalako baliabide teknikorik hori gauzatzeko? Zein dira Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Informatikaren, Telekomunikazioen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak ipintzen dituen baliabide teknikoak eta

giza baliabideak, beharrezkoak diren auditoretza informatikoko laguntza eta lankidetzak ekintzak gauzatzeko? Nafarroako Zerga Ogasunak edo Informatikaren Zuzendaritza Nagusiak eskatu al dituzte inoiz informatikan adituak diren Tracasa edo Nasertic enpresa publikoen zerbitzuak, esleipen hori betetzeko ?

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, jakitekoa zer inbertsio teknologiko egingen dituen Nafarroako Gobernuak Tuterako Reina Sofía Ospitalean.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa zer inbertsio teknologiko egingen dituen Nafarroako Gobernuak Tuterako Reina Sofía Ospitalean.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera

hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak 2016ko apirilaren 14ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Tuterako Reina Sofía Ospitalea inauguratu eta abiarazi zenetik 30 urte bete berri dira. Ospitale horrek behar bezalako erantzuna eman die Nafarroako Erriberako herritarren arreta espezializatu-ko beharriari. Beharriari aldatu egin dira, denborak aurrera egin ahala, eta, beraz, Adminis-trazioak erantzuna eman behar die beharriari berri horiei.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuari honako hau galdetzen diogu:

Zer inbertsio teknologiko egingen ditu Nafarroako Gobernuak Tuterako Reina Sofía Ospitalean, Erriberako biztanleen osasungintza-eskariak asetzeko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Nafarroako Gobernuaren balorazioari buruzkoa Idomeniko jarduketari dagokionez, eta jakitekoa zein diren abiaraz ditzakeen ekimenak, siriari errefuxiatuak jasaten ari diren egoera inhumanoari erantzuteko.

MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuaren balorazioari buruzkoa Idomeniko jarduketari dagokionez, eta jakitekoa zein diren abiaraz ditzakeen ekimenak, siriari errefuxiatuak jasaten ari diren egoera inhumanoari erantzuteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du Osoko Bilkurarako.

• Idomeniko jarduketari dagokionez, parlamentari honek jakin nahi du zein den Nafarroako Gobernuaren balorazioa eta zein diren abiaraz ditzakeen ekimenak, siriari errefuxiatuak jasaten ari diren egoera inhumanoari erantzuteko.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

Galdera, Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak aurkeztutako kalte-galerengatiko erreklamazioei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Reyno de Arena Pabiloiaren II. Faseko aldi baterako enpresa-elkarteak aurkez-

tutako kalte-galerengatiko erreklamazioei buruzkoa zen, eta 2016ko otsailaren 2ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, iaz urte amaieran bertan behera utzitako programen kudeaketa sindikatuei eta patronalari itzultzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Carlos Couso Chamarro jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera iaz urte amaieran bertan behera utzitako programen kudeaketa sindikatuei eta patronalari itzultzeari buruz-

koa zen, eta 2016ko martxoaren 15eko 36. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Hezkuntzako lan-eskaintza publikorako deialdiari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Hezkuntzako lan-eskaintza publikorako deialdiari buruz-

koa zen, eta 2016ko urtarrilaren 28ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

